

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko abenduaren 17tik 23rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/12/23

- **LAN HITZARMEN KOLETIKBOAK. EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako industria siderometalurgikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboa. 03528E xedapena - 37 or.

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/12/17

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Antolaketa.** Ebazpena, 2022ko abenduaren 7koa, Itsasoko Gizarte Institutuarena, Institutuaren probintzia-zuzendaritzen lurralde- eta eskumen-eremuak ezartzen dituen. 21407 xedapena - 4 or.

2022/12/19

- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Balio erantsiaren gaineko zerga.** HFP/1245/2022 Agindua, abenduaren 14koa, abenduaren 23ko HAC/3625/2003 Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez onetsi baitzen Balio Erantsiaren gaineko zergaren aitortpen-likidazio ez-periodikoaren 309 eredia. 21458 xedapena - 4 or.
- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Aseguru-primen gaineko zerga.** HFP/1246/2022 Agindua, abenduaren 14koa, "Aseguru-primen gaineko zerga. Urteko laburpen-aitortpena" deritzon 480 eredia onesten duena, hura aurkezteko modua eta prozedura zehazten dituen eta azaroaren 10eko EHA/3127/2009 Agindua aldatzen duena. Azken agindu horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenen eta konturako diru-sarreraren urteko laburpenaren aitortpena egiteko 190 eredia onesten du, lanaren eta jardueraren ekonomikoen etekinei, sariei eta zenbait ondare-irabazi eta errenta-egozpeni dagokienez, eta beste zerga-arau batzuk aldatzen ditu. 21459 xedapena - 6 or.

2022/12/20

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Tren-sektorea.** 26/2022 Legea, abenduaren 19koa, Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legea aldatzen duena. **21574 xedapena - 49 or.**
- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** HFP/1259/2022 Agindua, abenduaren 14koa, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren kudeaketan aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak onesten dituen. **21577 xedapena - 2049 or.**

2022/12/21

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Zigor Kodea.** 13/2022 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena, gatazka armatu baten edo hondamendi humanitario baten ondorioz lekualdatutako gizakien salerosketa-delituertarako aurreikusitako zigorrak larriagotzeko. **21676 xedapena - 2 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Politika publikoen ebaluazioa.** 27/2022 Legea, abenduaren 20koa, Estatuko Administrazio Orokorrean politika publikoen ebaluazioa instituzionalizatzeari buruzkoa. **21677 xedapena - 22 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. Presako neurriak.** Ebazpena, 2022ko abenduaren 15koa, Diputatuen Kongresuarena, honako errege lege-dekretu hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 19/2022 Errege Lege Dekretua, azaroaren 22koa, ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-maileguren interes-tasen igoera arintzeko Jardunbide Egokien Kodea ezartzen duena, martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretua —baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko premiazko neurriei buruzkoa— aldatzen duena eta hipoteka-maileguren merkatua hobetzeko egiturazko beste neurri batzuk hartzen dituen. **21678 xedapena - 1 or.**
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Elikagaien kontratuak.** 1028/2022 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, Elikadura Kontratuen Erregistroa garatzen duena. **21680 xedapena - 11 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Elikagaiak.** 1021/2022 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, txikizkako merkataritzako establezimenduetan elikagaiak ekoitzi eta

merkaturatzeko higiearen arloko zenbait betekizun arautzen dituen. **21681 xedapena - 22 or.**

- **PRESIDENTETZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Babes erradiologikoa.** 1029/2022 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotearen ondoriozko arriskuetatik osasuna babesteko Erregelamendua onesten duena. **21682 xedapena - 61 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Bide publikoetan laguntzea.** 1030/2022 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, bide publikoetako laguntza-zerbitzuak arautzen dituen martxoaren 16ko 159/2021 Errege Dekretua aldatzen duena. **21683 xedapena - 6 or.**

2022/12/22

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Enpresa emergenteak.** 28/2022 Legea, abenduaren 21ekoa, enpresa emergenteen ekosistema sustatzekoa. **Disposición 21739 - 44 págs.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Eurojust.** 29/2022 Legea, abenduaren 21ekoa, ordenamendu nazionala Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko azaroaren 14ko Eurojust-i buruzko 2018/1727 (EB) Erregelamendura egokitzen duena, eta jurisdikzio-gatazkak, nazioarteko lankidetzak juridikoko sareak eta Justizia Ministerioaren mendeko atzerriko langileak arautzen dituen. **Disposición 21740 - 17 págs.**

2022/12/23

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Zigor-arloko legeria.** 14/2022 Lege Organikoa, abenduaren 22koa, Europako zenbait zuzentzauren eta zigor-arloko legeria Europar Batasunaren ordenamendura egokitzeko beste xedapen batzuen transposizioa egiten duena, eta osotasun moralaren aurkako delituak, desordena publikoak eta erabilera bikoitzeko armen kontrabandoa erreformatzen dituen. **21800 xedapena - 23 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/12/22

- **OSASUN SAILA. BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.** 150/2022 DEKRETUA, abenduaren 7koa, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzkoa. **05484e xedapena- 30 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/12/23

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA 153/2022, abenduaren 20koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 26ko 66/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoaren zuzeneko zergapetzearen arloko adiskidetasunezko prozeduren erregelamendua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuak onesten duen Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia aldatzen dituen. **I-1160 xedapena- 18 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/12/19

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 572/2022 Foru Agindua, abenduaren 13koa, foru agindu hauek aldatzen dituen: abenduaren 26ko 592/2016, abenduaren 21eko 591/2016, urtarrilaren 21eko 27/2018, abenduaren 29koa 530/2020 eta abenduaren 29ko 530/2020 Foru Aginduak, hurrenez hurren 181, 196, 198, 208 eta 289 ereduak onesten dituztenak. **07846 xedapena- 19 or.**

2022/12/23

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** Ebazpena, 2022ko abenduaren 14koa, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 3/2022 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa. **08495 xedapena- 1 or.**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 575/2022 Foru Agindua, abenduaren 18koa, urtarrilean aurkeztekoak diren aldizkako aitoponen eta autolikidazioak aurkezteko borondatezko epea urtarrilaren 31ra arte luzatzen duena. **08406 xedapena- 6 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

2022/12/19

- **ERABAKIAK.** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/2481 (EB) Erabakia, 2022ko abenduaren 14koa, 2030erako Hamarkada Digitalaren Programa Estrategikoa ezartzen duena. **L 323/4 xedapena- 23 or.**

2022/12/21

- **ERABAKIAK.** Batzordearen 2022/2519 (EB) Betearazpen Erabakia, 2022ko abenduaren 20koa, e-CODEX sistemaren arau eta espezifikazio teknikoei buruzkoa, segurtasunari eta osotasuna eta benetakotasuna egiaztatzeke metodoei buruzkoak barne. **L 326/25 xedapena- 9 or.**
- **ERABAKIAK.** Batzordearen 2022/2520 (EB) Betearazpen Erabakia, 2022ko abenduaren 20koa, e-CODEX sistema eskualdatu eta kontrolatzeko prozesurako berariazko xedapenei buruzkoa. **L 326/34 xedapena- 23 or.**

2022/12/22

- **GOMENDIOAK.** Kontseiluaren 2022/2547 (EB) Gomendioa, 2022ko abenduaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen baita 2022/107 (EB) Gomendioa, COVID-19aren pandemian zirkulazio seguru askea errazteko ikuspegi koordinatuari buruzkoa. **L 328/138 xedapena- 8 or.**
- **GOMENDIOAK.** Kontseiluaren 2022/2548 (EB) Gomendioa, 2022ko abenduaren 13koa, COVID-19aren pandemian Batasunera egiten diren bidaietarako ikuspegi koordinatuari buruzkoa eta Kontseiluaren 2020/912 (EB) Gomendioa ordeztzen duena. **L 328/146 xedapena- 7 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO